



## Burdinbidearen Euskal Museoak datorren asteburuan hiru Lurrun-Tren zirkulazioan jarriko ditu

Eusko Jaurlaritzako Sozietate Publikoa den Euskotreneko Burdinbidearen Euskal Museoak, datorren asteburuan hiru lurrun-tren zirkulazioan jarriko ditu.

Tren horiek Museotik (Azpeitia) Lasara honako irteera ordutegia izango dute:

- Larunbata, uztailak 18: 12:30ean eta 18:00etan.
- Igandea, uztailak 19: 12:30ean.

1998tik aurrera, Euskotreneko Burdinbidearen Euskal Museoak Urola Haraneko Lurrun Trenaren ustiapena kudeatzen du, Azpeitiko Museoaren eta Lasaren artean. Zerbitzu hori da lurrun-ikatz tren-makinaren bidez lan egiten duen Iberiar penintsulako tren turistikoa bakarra. Eta Burdinbidearen Euskal Museoaren Lagunen Elkarteko kideen laguntza boluntarioarekin eta guztiz altruistarekin ematen da.

Museoko instalazioen irekiera ordutegia honako hau da:

- Asteartetik larunbatera: 10:30etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:30era.
- Igandeak eta jaiegunak (astelehenak izan ezik): 10:30etatik 14:00etara.

### **Bisitariak eta langileak zaintzeko neurriak, Covid-19rekin bizi diren testuinguruan**

Azpeitiko Burdinbidearen Euskal Museoako bisitarien eta langileen segurtasuna bermatzeko helburuarekin, eta Covid-19ak eragindako egoeraren aurrean beharrezkoa den urrutze fisikoari eusteko, honako neurri aktibo eta pasibo hauek ezarri dira:

- Babes-holtzak harreran.
- Hidrogel desinfektatzailearen banatzaileak.
- Ibilbide erabat zirkularra izango duen zirkuitu bat sortzea, Museoko bisitariak atzera egin dezaten eta aurretik daudenekin gurutzatu ahal izan daitezen saihesteko, jarraitu beharreko bidearen zorian gezi adierazgarriak markatuz.
- Edukiera murriztuko erakusketa-aretoak ixtea, distantzia sozial egokia bermatu ezin denean: Tren-uniformeen eta -kronometriaren bildumak.
- Instalazioen garbiketa indartzea, Museoko bisitariak eta langileak manipulatu ditzaketen elementuetan arreta berezia jarritz.
- Beste edozein esparru publikotan bezala, nahitaez erabili behar dira maskarak Museoko instalazioetara sartzeko.



Osasun-egoeraren bilakaeraren zain, tailer mekanikoaren eta tranbia historikoaren bisita gidatuak eta erakustaldiak bertan behera geratuko dira.

### Jendaurreko informazioa

- Burdinbidearen Euskal Museoaren helbidea: Julián Elorza kalea, 8 (20730 AZPEITIA-GIPUZKOA).
- Informaziorako telefono-zenbakia: 943 15 06 77
- Faxe: 943 15 07 46
- Helbide elektronikoa: **[museoa@euskotren.eus](mailto:museoa@euskotren.eus)**
- Webgunea: **[www.euskotren.eus](http://www.euskotren.eus)**

Igorpen data: 2020-07-15

